Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1034

EBAZPENA, 2010eko otsailaren 5ekoa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean integratutako eragile teknologikoentzako orduko gehienezko tarifak onartzen dituena.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko urriaren 2ko Aginduak funtsezko ikerketarako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean (SAIOTEK programa) integratutako Eragile Zientifiko–Teknologikoentzako laguntza-programa arautzen du (2008ko urriaren 16ko EHAA). Programa horren helburua Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean integratutako Eragile Zientifiko-Teknologikoen ekonomikoa ez den jarduera finantzatzea da.

Diru-laguntza kalkulatzeko, onuradun den eragile zientifiko-teknologiko batek eskaera aurkezten duen unean justifikatua izan den masa ikertzaile ekonomikoaren zenbatekoari ehuneko edo frakzio bat aplikatzearen ondoriozko gehieneko muga hartuko da kontuan, eta ezin izango du inoiz ere ekonomikoa ez den bere jardueraren % 100eko gehieneko muga gainditu. Ikerketa-masa zein den kalkulatzeko, maila profesionalen arabera ezarriko diren ordutegi-tarifak hartuko dira kontuan eta hori agindu honetan eta haren garapenerako xedapenetan zehazten den eran egingo da.

8. artikuluan ezartzen denez, urtero, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordeak eragile teknologiko guztientzako orduko gehienezko tarifak onartzeko administrazio-ebazpena emango du, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Aipatutako lege-aginduak, eta oro har eta haiekin bat etorriz aplikatu beharreko gainerako xedapenak aztertu ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean integratutako Eragile Zientifiko-Teknologikoentzako 2010eko ekitaldiko orduko gehienezko tarifak onartzea.

Bigarrena.– Ikerketa-zentro, oinarrizko ikerketa eta bikaintasun-ikerketa zentroetarako 2010eko ekitaldiko orduko gehienezko tarifak honako hauek izango dira:

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

1034

RESOLUCIÓN de 5 de febrero de 2010, del Viceconsejero de Innovación y Tecnología, por la que se aprueban las tarifas máximas horarias del año 2010, para los agentes tecnológicos integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

La Orden de 2 de octubre de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, regula el Programa de Ayudas a los Agentes Científico-Tecnológicos integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación para la investigación fundamental, Programa Saiotek (BOPV de 16 de octubre de 2008), que tiene por objeto la financiación de los Planes de Actuación de la actividad no económica de los Agentes Científico-Tecnológicos integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

Para el cálculo de subvención se tendrá en cuenta un límite máximo resultante de la aplicación de un porcentaje o fracción al importe de la masa investigadora económica que haya sido justificada en el momento de presentación de la solicitud por un Agente Científico-Tecnológico que tenga la condición de beneficiario, que en ningún caso podrá superar el límite máximo del 100% de su actividad no económica. Para el cálculo de la masa investigadora se tendrán en cuenta las tarifas horarias por categorías profesionales en la forma que se establece en la citada Orden y en sus disposiciones de desarrollo.

Así mismo se dispone, en su artículo 8 que, anualmente, se emitirá resolución administrativa por el Viceconsejero de Innovación y Tecnología de aprobación de las tarifas máximas horarias para el conjunto de los Agentes Tecnológicos, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación

RESUELVO:

Primero.– Aprobar las tarifas máximas horarias para el ejercicio 2010 para los Agentes Científicos-Tecnológicos integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

Segundo.– Las tarifas máximas horarias para el ejercicio 2010 para los Centros de Investigación y los Centros de Investigación básica y de excelencia, serán las siguientes:

Kategoria *Categoría*	Batez besteko tarifa *Tarifa media*
G1	90,13
G2	65,34
G3	50,40
G4	42,73
G5	9,08

Hirugarrena.– Ikerketa-zentro sektorialentzako eta ikerketako erakunde publikoentzako 2010eko ekitaldiko orduko gehienezko tarifak honako hauek izango dira:

Tercero.– Las tarifas máximas horarias para el ejercicio 2010 para los Centros Sectoriales de Investigación y los Organismos Públicos de Investigación, serán las siguientes:

Kategoria *Categoría*	Batez besteko tarifa *Tarifa media*
G1	88,45
G2	60,91
G3	40,33
G4	32,80
G5	9,08

Laugarrena.– I+Gko unitateentzako (enpresa-arlokoak eta sanitarioak), berrikuntzako bitarteko erakundeentzako, eta parke teknologiko eta enpresen eta berrikuntzako zentroentzako 2010eko ekitaldiko orduko gehienezko tarifak honako hauek izango dira:

Cuarto.– Las tarifas máximas horarias para el ejercicio 2010 para las Unidades de I+D (empresariales y sanitarias), Organismos Intermedios de Innovación, y Parques Tecnológicos y Centros de Empresas e Innovación, serán las siguientes:

Kategoria *Categoría*	Batez besteko tarifa *Tarifa media*
G1	77,36
G2	54,50
G3	40,52
G4	30,66
G5	9,08

Bosgarrena.– Ziurtapen-erakunde eta laborategientzako 2010eko ekitaldiko orduko gehienezko tarifak honako hauek izango dira:

Quinto.– Las tarifas máximas horarias para el ejercicio 2010 para las Entidades de Certificación y Laboratorio, serán las siguientes:

Kategoria *Categoría*	Batez besteko tarifa *Tarifa media*
G1	87,73
G2	55,28
G3	38,73
G4	32,87
G5	9,08

Seigarrena.– Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearentzako 2010eko ekitaldiko orduko gehienezko tarifak (UPV/EHUren edo administrazio publikoetakoak diren beste erakunde batzuenak edo horien mendekoenak) 33,75 euro izango dira langile propio edo plantillako langileentzat. Diruz lagundutako proiektua egiteko berariaz kontratatutako langileentzat, zuzeneko kostua izango da tarifa.

Sexto.– Las tarifas horarias para el ejercicio 2010 para la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) o de otras entidades pertenecientes a las Administraciones Públicas o vinculadas o dependientes de las mismas, será de 33,75 euros para el personal propio o de plantilla. Para el personal contratado específicamente para realizar el proyecto subvencionado, la tarifa será el coste directo.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 5a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de febrero de 2010.

El Viceconsejero de Innovación y Tecnología,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.